



Euskal literatura egonaldia – 2016 DEIALDIA
« NEKATOENEA » baserrian – ABBADIako EREMUA HENDAIA

Seigarren aldikoz, Euskal Kultur Erakundeak, Euskal Itsasbazerreko C PIEk eta Euskal Idazleen Elkarteak (EIE) beren baliabideak eta gaitasunak bateratzen dituzte gazte literatura egonaldi baten antolatzeko 2016an, Hendaian. Egonaldia euskal idazle guzietan zuzentzen zaie.

AURKEZPEN EPEAREN BUKAERA : 2016ko maiatzaren 17a

TOKIA : Nekatoenea – Abbadia Eremua - 64700 HENDAIA

DATA : 2016ko urria eta azaroa bitartean

IRAUPENA : hilabete bat

ARTISTARI EMAN BEKA : 1000 €

Artistaren aterbetzea

Tailer-apartamendu bat artistaren esku ezarria izanen da hilabete baterako Hendaia Abadiako Eremuan, « Nekatoenea » deitzen den etxean.

"Nekatoenea" Abadiako Eremua babestuan izanik, idazleak beharko ditu bertako arauak kontutan izan (bizikleta eta zakurrak debekatua, parkinga 700 m.tara).

Ekoizpen eta balorazio baldintzak

Egitasmoak bi zati ukanen ditu, eta ondokoak beharko dira ongi errespetatu :

1-Gazte literatura sorkuntza (hilabete batez), Hendaia "Nekatoenea" etxean.

Artistaren esku utziko da ekoizpen motaren eta lan gaien hautua, kontuan harturik literatura sorkuntza euskaraz egiten dela. Programa horren xedea euskal kulturaren

aniztasun osoa baloratzen duten proiektu berritzaileak gazteengan eta gazteekin sustatzea da.

2- Ikasle gazteekin jarduera bat

12 urtetik gorako ikasle talde batekin. Idazleak bere idazlanari buruz proposatu nahi duen lana. Ikasturte hasieran hitzartuko du irakaslearekin eta 2016-2017 ikasturte bitartean antolatuko du ikasleekin 12 orduz elkartzuz. Jarduera honek Hego Lapurdiko Hirigune eta DRACeko EAC programaren barnean izanen da horien finantzaketa berezia izanik.

Hautaketa

Epaimahai batek du hautua eginen, hautagaitza txostenak aztertu ondoren. Partaide egitura bakoitzak ordezkari bat izendatuko duelarik epaimahaian parte hartzeko.

Txostenak (egitasmoa, CVa, erreferentzia literarioak, etabar) hiru helbide hauetara igor daitezke, edo mailez, edo postaz, **2016.eko maiatzaren 17a baino lehen:**

Emitza

ERABAKIAREN ERANTZUNA E-POSTAZ IGORRIKO ZAIE HAUTAGAI GUZIEI .

- EUSKAL ITSASBAZTERREKO CPIE (Aintzane Lasarte)
www.nekatoenea.eu - cpilittoralbasque.sorkuntza@hendaye.com
Larretxea, rue Armatonde karrika, 64700 Hendaia
Tel. (33) 559 20 37 20
- EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEA – EIE
www.idazleak.eus, eie@idazleak.eus
Euskal Idazleen Elkartea • Zemoria kalea, 25 • 20013 Donostia (Gipuzkoa)
- Tel : (34) 943 27 69 99
- EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA – EKE
www.eke.eus, etchegein@eke.eus -
Lota jauregia - 64480 Uztaritze Tel. (33) 559 93 25 25